

* Bukatu da krisia Ekuadorren, Kongresuak Alarcon lehendakari aukeratu ondoren

Armadaren jokaerak kritikak eragin ditu iturri politiko eta diplomatikoetan

Fabian Alarconek garapena lortu du 57 diputaturen aldeko botoarekin, eta astearte gauean lehendakari karguaren zina egin zuen. Armadak sustengua azaldu dio Alarconi, eta Kongresuak krisian erabilitako konstituzioz kanpoko bideari buruzko kritikak ugaritu egin dira.

Agentziak / Quito

1998-RA arte Ekuadorko behin-behineko lehendakari izango da Fabian Alarcon, Kongresuaren eta Armadaren sustengua erdie-tsi ondoren. Zeregin nagusia hauteskunde orokorrak antolatzeko izango du, lehendakaria herriak hauta dezan. Lehen adierazpenetan Alarconek Armadari eskerrak eman zizkion, «herriaren egoera aldatu beharra dagoela ulertu duelako».

Sei egunetan bigarren aldia da Ekuadorko Kongresuak Fabian Alarcon behin-behineko lehendakari izendatzen duena. Rosalia Arteaga, 48 orduz Ekuadorko lehendakari izan dena, bere ministroekin Kongresuaren egotzara iristen saiatu zen, baina Parlamentuko Poliziak ez zion sartzen utzi.

Rosalía Arteagak ordu batzuk lehenago, komunikatu baten bidez, Kongresuan hitz egin ahal izatea eskatu zuen, baina diputatuaren erantzuna ezezkoa izan zen, saio berezia lehendakari berria aukeratzeko soilik zela argudiatuta. Orduan prentsaurreko batean utzi egin zuen estatuburu kargua, baina oraindik lehendakariorde zela esan zuen.

Krisia amaitzeko Rosalia Ar-



Fabian Alarcon, jendeari agur egiten Legebiltzarreko lehendakari izendatu eta gero. DOLORES OCHOA AP

teagak eta Fabian Alarconek Armadaren ekimenez akordio bat egin zuten. Arteaga egun batzuetan lehendakari izango zela erabaki zuten, eta ondoren Alarconi utziko ziola postua. Baina Rosalia Arteagak eutsi nahi izan zion Lehendakariari. Haren argudioa: Kongresuak lehendakari berria aukeratzeko ahalmena izateko Konstituzioa erreformatu behar zela. Baina diputatuak ez dute aintzat hartu, eta Armadak

kargua uztera behartu du Arteaga.

Nahiz eta argudio juridikoek nahastu duten krisia, iturri diplomatikoen ustez Ekuadorko gartzeko sektore batek hasitako borroka politikoa izan da, eroso ez zen gobernu bat jokoz kanpo uzteko. Kongresuak ez zuen ahalmenik Abdala Bucaram lehendakari kargutik kentzeko, ezta haren osasun mentala epaitzeko. Baina, hala ere, Armadak era-

baki horri sustengua eman zion.

Ekuadorko Armadak parte hartze berezia izan du krisian, haren sustengua zuenak lortu baitu azkenean garapena. Diplomatio europar baten hitzetan laburtzen da askok eta askok pentsatzen dutena: «Paradoxa bat da demokrata zibila ikusteak azkenean jeneralak joan direlako Jauregi estatuburu zibil bati joan egin behar duela esatera». X

Maskhadovek Txetxeniako lehendakari kargua hartu du

■ Lider independentistak herria aurrera ateratzeko lan gogorra egingo duela hitzeman du

Agentziak / Mosku

ASLAN MASKHADOV-EK, Txetxeniako indarren buruzagi nagusi ohiak, atzo egin zuen Ipar Kaukasoko errepublika horretako lehendakari karguaren zina, eta ekitaldian nazioarteak Txetxeniaren independentzia ezagut dezan lan egingo duela hitzeman zuen. Kargua harzeko ekitaldia Djokhar Galan izan zen —izen berri hori jarri diote Grozni hiriburuari, Djokhar Dudaiev gerran Errusiako zerbitzu sekretuek hildako lehendakariaren omenez—, Kultura Jauregian, segurtasun neurri gogorren artean.

Zelimkhan Jandarbievek, orain arte lehendakari izan denak, eman zion ekitaldiari hasiera, eta Maskhadovi boterea eman aurretik omenaldia egin zien



Aslan Maskhadov ukabila altxatuta, garaipenaren ikurra egiten, atzo Groznin.

VLADIMIR MAXATIN / EPA

Errusiako Armadaren aurkako borrokan eroritakoei.

Gero, Maskhadovek karguaren zina egin zuen Koranaren gainean. «Ez dut kargu bat hartu, baizik eta herriaren aurreko erantzukizuna», esan zuen lehendakari berriak, eta zeregin nagusia «Txetxenia aurrera ateratzea» izango duela gaineratu zuen. «Lan gogorra daukagu aurrean, baina ez diogu beldurrik», adierazi zuen.

Txetxeniatik kanpoko jendea ere joan zen ekitaldira, Ivan Ribkin Errusiako Segurtasun Kontseiluko idazkaria eta aldameneko Dagestan eta Inguxia errepubliketako lehendakariak, Ruslan Auxe eta Magomad Magomodov. Kremlinoko diplomaziarren presio gogorraren ondorioz, beste herri batzuek azkenean ez zuten ordezkari bidali. X

Hasi dira hizketak Peruko Gobernu eta MRTAko komandoa

■ Negoziaziorako agenda ezartzea izango da lehen elkarrizketen xedea

Agentziak / Lima

LAU orduz egon ziren bildu astearte arratsaldean Rolij, jas, Arabiarra, MRTAko mandoko kidea, eta Domingo Palermo, Peruko Hezkuntza ministroa, leku neutralean eta Garanteen Batzordearen aurrean. Lehen bilduren ostean, bi aldeek artean elkarrizketa zuzenak atzeratu egin ziren eta ez zen zehaztu hurrengo bilerarako eguna.

Aldeek etorkizuneko elkarrizketetarako erabiliko duen prozedura onartu zutela esan zuen Juan Luis Cipriani Ayacucho artzapezpikuak, lehen elkarrizketa hauetan ondoren erabakiko den negoziaketarako agenda ezartzen saiatuko direla aldeak. Perun preso dauden gerrillako 460 kideak askatzea eskaera agenda horretan sartzeko exijitu du MRTAk, baina Alberto Fujimoriaren gobernuak ez du horrelakorik onartzen eta behar eta berriz esan du krisian ondorioz ez duela MRTA presorik askatuko.

Arratsaldeko 15:00etan hasi zen bilera segurtasun neurri ikusgarriekin, MRTAko komandoak 72 lagun biltzeko dituen Japoniaren enbaxadaren parean, berrogei bat metrora dagoen beste enbaxadaren batean. Etxe hori Gurutze Gorriaren banderapean dago eta leku neutrala da nazioarteko arauen arabera. Franko tiratzaileak inguruko etxeetako teilatuetan eta harezkoak eta upeleko trintxeretan jarri ziren eta kazetariak 50 metrora urrundu zituzten.

Palermo, Peruko Gobernuaren ordezkaria, Garanteen Batzordeko beste kideekin iritsi zen elkarrizketa lekuak. Garanteen Batzordea Juan Luis Cipriani Ayacucho artzapezpikuak, Michel Minnig eta Anthony Vincent Peruko kanadar enbaxadoreak eta Terusuke Terada Mexikoko japoniar enbaxadoreak osatzen dute.

Michel Minnig eta Anthony Vincent, beira ilunak zituzten auto txuri batean, Japoniaren enbaxadara joan ziren MRTAko Rolij, Arabiarra, jaso eta elkarrizketa leku eramateko. Ez orduan ere elkarrizketa amaitu eta enbaxadara itzuli zutenean lortu zuten kazetariak Rolij ikusteak.

Nestor Cepak zuzendutako MRTAko komando bahitzaileak ez zuen egin bileraren buruzko adierazpenik ohiko bihurtu diren uhin motzeko irrati komunikazioen bidez. Bi aldeek arteko lehen elkarrizketa Fujimori Peruko lehendakaria Londresen bidaiatzen zegoela egin da. X